BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4691

AGINDUA, 2013ko abuztuaren 6koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinen bidez baimentzen baita Bilboko Santiago, Santa Ana eta Krug 24. Igorritako Antolamendu Areako zuzkidurazko bizitokietarako estandarrak betetzea, udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean lehendik dauden lurzoru-erreserbetan.

Bilboko udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren Aldaketaren dokumentuak –24. Igorritako Antolamendu Areari buruzkoak: Santiago, Santa Ana eta Krug– memorian justifikatzen du lehendik ere lurzoru-erreserba nahikoa badagoela plangintzan zuzkidurazko bizitokietarako, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 81. artikuluan eskatutako gutxieneko proportzioan; aipatutako 2/2006 legearen 105.5 artikuluan eta uztailaren 3ko hirigintzako estandarrei buruzko 123/2012 Dekretuak 18.3 artikuluan aurreikusitako prozeduraren arabera.

GERTAKARIAK

Ezarritako prozedurarekin bat etorriz, Bilboko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren Aldaketaren espedienteak, 24. Igorritako Antolamendu Areari buruzkoak: Santiago, Santa Ana eta Krug, Bizkaiko Hirigintza Plangintzarako Atalaren txostena jaso du 2013ko apirilaren 24an ospatutako 2/2013ko bilkuran, behin betiko onartua izan aurretik.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Sail hau eskuduna da aztertzen den espedientea ebazteko, hirigintzako estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuak 18.3 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

2.– Aurkeztutako dokumentuak Bilboko Santiago, Santa Ana eta Krug 24. Igorritako Antolamendu Areak bete beharreko zuzkidurazko bizitokietarako estandarren konpentsazioa proposatzen du plangintzan lehendik ere dauden lurzoru-erreserbetan. Zuzkidurazko bizitokien estandarra betetzearren, 53,75 m^2 dituen lurzoru-azalera bat kalifikatu beharko da, 2/2006 Legearen 81. artikuluaren arabera. Kasu honetan, Arangoitiko ekipamendu publikorako orubean, 1.535 m^2-ko azalera duen lursailean.

Aztertuta geratu da Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea eta hirigintzako estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretua, baita Bizkaiko Hirigintza Plangintzarako Atalak emandako aldeko txostena. Ondorioz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea eta hirigintzako estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuarekin bat etorrita, Bilboko Santiago, Santa Ana eta Krug 24. Igorritako Antolamendu Areak bete beharreko zuzkidurazko bizitokietarako estandarra udalerriko Hiri Antolamenturako Plan Orokorrean lehendik ere dauden lurzoru-erreserbetan betetzea baimentzea; zehazki, Arangoitiko ekipamendu publikorako orubean.

Bigarrena.– Baimen hori Bilboko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren testuari, espedientea bete izanaren justifikazioa eransteari baldintzatua geratuko da, 2/2006 Legearen 105. artikuluaren eta 123/2012 Dekretuaren 18. artikuluaren arabera.

Hirugarrena.– Baimen hori aurreko ataletan ezarritako baldintzetan ematen da, eta ez du baliorik izango behin betiko onarpena, zuzkidurazko bizitokietarako estandarrak betetzeari dagokionez, eskumena duten esparruren batean (hartzailea edo igorlea) aldaketarik eragiten duten beste baldintza batzuekin ematen bada.

Laugarrena.– Bilboko Udalari agindu honen berri ematea.

Agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindu hau argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Halaber, nahi izanez gero eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri baino lehen, berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko epean, agindu hau argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta biharamunetik hasita. Kasu horretan ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri berraztertzeko errekurtsoa espresuki erabaki edo bere ustezko gaitzespena gertatu arte.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abuztuaren 6a.

Izenpea eskuordetzearen bitartez (2013ko uztailaren 17ko Agindua), Etxebizitzako sailburuordea.

Etxebizitzako sailburuordea,
M.ª COVADONGA SOLAGUREN SANTAMARÍA.